

Ebazpena: R019/2025
Espedientea: E068/2022

Bilbao, 2025eko ekainaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka hori da NYESA PROYECTOS URBANOS SLren (NYSEA; IFK: XXXXXXXX1) BEZaren saldo konpentsatu gabekoak itzultzeari buruz; saldo horiek sortu ziren 2017ko abuztuaren 7an egindako egoitza-aldaketaren eskaeraren ondoriozko administrazioen arteko kreditu publikoko eskubidearen preskripzio-data baino lehen. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 68/2022 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2011ko azaroaren 11n, BFAk ZAEAr jakinarazi zion NYESAren egoitza fiskala Bizkaitik Zaragozara aldatzeko proposamena, 2005eko irailaren 2an eratu zenetik aurrerako efektuekin.

Adostasunik ez zegoenez, 8/2012 gatazka bideratu zen, eta 16/2017 Ebazpenarekin amaitu zen, adierazita egoitza beti lurralde erkidean egon zela.

2.- BFAk ZAEARI bidali zion zein ziren 2008ko urtarrilaren 25etik 2016ko uztailaren 25era bitarteko aldiko zerga-karpeta eta finantza-fluxuak.

3.- Dokumentuak aztertu ondoren, ZAEAk BFARI eskatu zion bidaltzeko konpentsatzeke zeuden zenbait saldo, 2009ko BEZean sartuta zeuden arren 2007ko azaroaren 11 baino lehen sortu zirenak.

NYESA VILLARIAS SLk (NYESAk xurgatutako sozietatea) sortutako saldoak ere eskatu zituen, baina haien inguruko akordioa egin zen geroago.

4.- 2018ko azaroaren 22an, BFAk ez zuen onartu berak itzuli behar zuenik egoitza-aldaketaren atzeraeraginaren aurretik sortu zen eta konpentsatzeke zegoen saldo hori.

5.- Akordiorik gabeko zenbait jakinarazpen egin ondoren, ZAEAk BFARI inhibizio-errekerimendua egin zion, 2022ko ekainaren 13an.

6.- 2022ko urtarrilaren 13an, BFAk ZAEARI jakinarazi zion uko egin ziola inhibizio-errekerimenduari .

7.- 2022ko abuztuaren 9an, ZAEAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, zeina 68/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Administrazioen arteko eskubide publikoko kredituen preskripzioa eta, egoitza fiskala aldatuz gero, BEZaren saldoak tokiz aldatzeko ezintasuna.

Arbitraje Batzordearen 110/2023 Ebazpenak honen antzeko eztabaida bat ebatzi zuen, eta hau ezarri zuen:

«2.- Administrazioen arteko eskubide publikoko kredituen preskripzioa.

Egoitza fiskalaren aldaketa baten atzeraeraginetik eratorritako finantza-fluxuak bidaltzea administrazioen arteko eskubide publikoko kreditua da.

11/2014 Ebazpenean eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko (ECLI:ES:TS:2015:5337), 2020ko maiatzaren 18ko (ECLI:ES:TS:2020:1010), 2020ko abenduaren 3ko (ECLI:ES:TS:2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28ko (ECLI:ES:TS:2021:372) eta 2022ko otsailaren 10eko (ECLI:ES:TS:2022:596) epaietan, Arbitraje Batzordeak honako irizpide errepikatu hau finkatu du: administrazioen arteko kreditu publikoaren eskubidea aurrekontu-arloko izaera publikoko eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen tributuek eskubideaz bestelakoa; eta administrazioen arteko kreditu publikoaren eskubidearen preskripzio-epea hasten da sarrera bidegabea egiten den unean, eta ez da eteten zergapekoarekin (hirugarren bat administrazioen arteko harreman juridikoan) eskuduntzat jotzen den administrazioak betetako tributuek prozeduran egindako egintzen ondorioz.

Ondorioz, zergapekoak egindako diru-sarreretatik eta itzulketetatik eratorritako kreditu-eskubidea 2007ko azaroaren 11ra atzeratzen da, nahiz eta bi administrazioek aitortu zergapekoaren egoitza fiskala askoz ere lehenago zegoela lurralde erkidean (2005eko irailaren 2an).

3.- Egoitza fiskala aldatuz gero BEZaren saldoak lekuz aldatzeko ezintasuna.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia uniforme eman du BEZaren zatiketari buruz, soilik administrazio bati zergak ordaintzen dizkieten zergapekoen egoitza fiskala aldatzen den kasuetarako. Ildo horretatik, honako hauek aipatu behar ditugu: 2010eko ekainaren 10eko epaia (ECLI:ES:TS:2010:4013), 2010eko ekainaren 17ko epaia (ECLI:ES:TS:2010:4101) eta 2011ko martxoaren 30eko epaia (ECLI:ES:TS:2011:1904).

Epai horietan zehazten da ezen konpentsatzeke edo itzultzeke dauden saldoak ezin direla eraman egoitza fiskala aldatzearen ondorioz eskudun bihurtu den administrazio berrira».

Auzitegi Gorenaren 2025eko maiatzaren 21eko epaiak (ECLI:ES:TS:2025:2407) —zeinak ezetsi egiten baitu 110/2023 Ebazpenaren aurka jarritako 159/2024 Errekurtsoa— eta 2025eko maiatzaren 28ko epaiak (ECLI:ES:TS:2025:2534) —zeinak ezetsi egiten baitu 88/2023 Ebazpenaren aurka jarritako 1284/2023 Errekurtsoa— argitzen dutenez, egoitza-aldaketaekin ordaindu gabeko saldoen arazoa osatu behar da kredituen preskripzioaren irismenarekin, eta zehazten dute egoitza fiskala aldatzeko proposamenak aurrekontu-izaerako administrazioen arteko kreditu-eskubidearen preskripzioa eteten duela; aldiz, zergapekoak (kasu honetan, 2009an) egindako eta konpentsatu edo itzuli beharreko aitorpenek ez dute halakorik egiten. Beraz, preskripzioarekin gertatutakoak eragotzi egiten du administrazioen arteko aktibo eta pasiboen transferentzia murriztu ahal izatea 2007ko azaroaren 11 baino lehen sortu ziren eta konpentsatzeke dauden saldoengatik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea BFAk ZAEARI NYESAren egoitza fiskala aldatzearen ondorioz ordaindu beharreko kopurua ezin dela murriztu 2007ko azaroaren 11 baino lehen sortu ziren eta konpentsatzeke dauden saldoengatik.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta NYESA PROYECTOS URBANOS SL entitateari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.